



elgoibar **ikastola**

Pedro Miguel Urruzuno Koop.



ELGOIBAR IKASTOLAKO HARRERA PLANA



Harrera Plana.

Ikasle berriak ikastetxera egokitzen laguntzeko helburua duen jarduera protokoloa da.

Ondorengo puntuak ikutzenditu:

1.Kurtsoan zehar gelara ikasle berria etortzen denean

1.1.Harrera familiari.

1.2.Arretaren antolaketa

1.3.Harrera ikasleari.

2.Ohiko matrikulazioa denean.

1.1.Harrera familiari.

Administrazio arduradunak eta orientatzaileak, ikaslearen **informazioa jasotzen** du(datu orokorrak,errola agiria, kontaktuak, dokumentazioa,....

Bestalde ikastolak familiak behar duen **informazioa** (ikastolaren filosofia, ikastola erakutsi, egutegiak, ordutegiak, behar den materiala...) eta dokumentazioa emango dio. Ikaslearekin emango diren pausoak ere azaltzen zaizkie.

1.2.Arretaren antolaketa.

Jarrita dauden irizpideen arabera gela adskribitzen da (mailako tutoreak eta orientazio departamendua).

Adinaren arabera eta behar denean, hasierako ebaluazioaren protokoloa martxan jartzen da.

Bukatzeko ebaluazioaren ondoren eta beharra badu norbanako plana prestatzen da.

1.3.Harrera ikasleari.

Harrera honek bi aspektu ditu, bata gelarena eta bestea ikaslea berarena.

Ikaslea heldu baino lehen gela positiboki motibatzen da (Nongoa den ikasle berria, nondik datorren, ezaugarriak, egin daitezkeen ekintzak...) Lehen egunetarako gelako laguntzaile edo erreferentean izendatzen dira.

Gelara heltzen denean, bere aurkezpena eta ikaskideena egin eta gero, materiala eman, ikastola erakutsi, funtzionamendua azaldu... eta gelako erreferenteak berarekin elkarlanean hasten dira.

2.Ohiko matrikulazioa.

Ohiko matrikulazioa denean, kurtso hasieran egiten diren familia bileretan, dagokion kurtsoko informazioa ematen da. Haurra HH0-3 tartean dagoenean, gela osoarekin egiten den bilera orokorretik aparte, haurrak izango duen egokitzapen aldiko ordutegia eta garaia zehazten da . Haurrarekin datorren arduraduna, gela barruan egoteko aukera izango du, hezitzailearekin harremana sendotu arte, banatze prozesua arinagoa izan dadin. Gurasoei honako dokumentazioa banatzen zaie(Egutegia, osasun gida, ekarri beharreko gauzen zerrenda, haurrari buruzko galdeketa....)